

## MATERIAL DIDAKTIKOEI ETA CURRICULUM BALIABIDEEI LAGUNTZEKO “LIBURU SOLIDARIO” PROGRAMA: 2026-27 IKASTURTEA

DBHko ikasle guztiak programan sartuta daude. Programan parte hartzeari **uko egiten** dioten familiek berriazko **uko-agiria aurkeztu beharko dute 2026ko uztailaren 17a baino lehen**. [Inprimakia](#) (ikastetxean, aurreko estekan eta webgunean eskuragarri dagoena) behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko da Idazkaritzan (Administrazioan). Programari uko egiten dioten familiek beren kabuz erosi beharko dituzte ikasturteko testuliburuak, eta ezingo dute jaso Hezkuntza Sailak eskaintzen duen eskola-materialerako beka. Ikasturterako behar diren **liburuen zerrenda ikastetxearen webgunean** egongo da eskuragarri ([www.laudiobhi.eus](http://www.laudiobhi.eus))

### FAMILIAREN eta IKASLEAREN KONPROMISOA

\_\_\_\_\_ Jaun/Andereak NAN \_\_\_\_\_ zenbakidunak,  
Bigarren Hezkuntzako (*dagokiona markatu*) **DBH1 / DBH2 / DBH3 / DBH4** egingo duen  
\_\_\_\_\_ ikaslearen legezko ordezkari naizen aldetik,

### ADIERAZTEN DUT

1. Ikasle honek Testuliburuaren eta Curriculum-Materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programan 2026-2027 ikasturtean parte hartzeko nahia. Halaber, Programaren xedea eta aplikazioaren berri izatea, eta azkenez hurrengo arauak onartzea.
2. 2026ko ekainaren 17ko Ebazpenaren arabera, berrerabil daitezkeen testuliburuak eta curriculum-materialak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxean bertan geratuko dira hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko, behin ongi zaindu direla eta hurrengo ikasturtean, berriz, erabiltzeko moduan daudela egiaztatuta; betiere zentroaren antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiak ezartzen duena aintzakotzat hartuta.
3. Nire seme-alabak testuliburuak eta curriculum-materialak maileguan izango ditu ikasturte batean erabiltzeko.
4. Programa honetan parte hartzeagatik, jarraibideetan adierazten den bezala, dagokion **diru-sarrera** ikastetxearen kontu korrontean egingo dut **irailaren 1a baino lehen** (*dagokiona markatu*)

**DBH1: 41€**

**DBH2 / DBH3 / DBH4: 45€**

*Ikastetxeko kontua:* ES50 2095 0611 09 1090178962 (Kutxabank)

**OHAR GARRANTZITSUA:** Kontzeptuan ikaslearen izen-abizenak eta maila (DBH1 / DBH2 / DBH3 edo DBH4) **ARGI** adierazi.

5. Ikasturte amaieran testuliburuak institutuan bertan utziko ditut, hurrengo ikasturtean erabiltzeko moduan daudela egiaztatuta, beti ere prest egonda:

- Ikastetxeak egingo dituen kontrolak egiteko, araudiaren arabera kontrol ekonomikoa barne.
- Testuliburuaren erabilera eta zaintza ona egitea. Testu liburuetan ezin da idatzi, azpimarratu, margotu...
- Ikasturteko azken egunetan entregatzeko, edo ikastetxean ikasteari utziz gero ikastetxe aldaketagatik, ikasleak alde egin aurreko egunetan.
- Programaren Batzordeak ikasturteko azken klase egunetan testuliburuak eta ikuskatuko ditu, eta hondatutzat hartuko dira:
  - Orriren bat falta bada.
  - Azpimarratuta, zikinduta edo apurtuta badago.
  - Itxura txarra badu: zikinduta, bazterrak tolestuak...
  - Azalak solte badaude.
- Testuliburuaren erabilera okerra egin duten ikaslearen legezko ordezkariari jakinaraziko die galdutako edo hondatutako materiala berriro jartzeko ikastetxeak jakinarazi eta bi aste epean. Epea amaitutakoan, ikaslearen legezko ordezkariak ez badu ikasmateriala berriro jarri, ikasleak EZINGO DU hurrengo ikasturtean programan parte hartu.
- Jasoko ditudan testu liburua berria zein berrerabiliak izatea.
- Testu liburua plastikozko azal ez itsaskorraz babestea.

**Beste argibideak:**

1. **HBP ikasleak:** Dagokion ikasturteko Liburu Solidario Programaren kuota ordaintzen dute, zenbait ikasgaitarako fotokopien gastuei eta, irakasleek hala adierazten badute, ikasgaiaren liburua jasotzeko.
2. **Aniztasun Kurrikularra (DC) programaren ikasleak:** Ingeleseko liburua bakarrik jasoko dute; hala ere, *Liburu Solidarioa* programaren kuota ordaintzen dute gainerako materialen fotokopien kontzeptuan.
3. **Maila guztietan familiak Ingeleseko ariketa-liburua (Workbook) erosi beharko du,** institutuaren webgunean argitaratutako zerrendan agertzen dena.
4. Familiak kuota behin ordainduta, **dokumentazioa** (konpromiso-orria beteta, sinatuta eta ordainagiria) ikastetxeko **Idazkaritzan (Administrazioan) entregatuko du.**

Laudion, 2026ko ekainaren 30ean

Zuzendaritza Taldea

Ikaslearen legezko ordezkariaren sinadura

Ikaslearen sinadura